

Gartzelaren
azterketa.

Gartzelako baldintzak
leuntzeko
proposamenak



aurkibidea

sarrera

lehen atala

- 1. Tormentuaren sistematik gartzelaren sistemara.**
 - 1.1. Zigortuen tormentua.
 - 1.2. Erreforma penala.
 - 1.3. Presondegiaren sorrera.
 - 1.4. «Gartzelazain ahalguztiduna».
- 2. Eskumen judizialek gartzelakora.**
 - 2.1. Gartzelaren fenomenua. Zigortzeko eskubidea.
 - 2.2. Gartzela-erakundearen independentzia deklarazioa.
- 3. Bizitza gartzelan.**
 - 3.1. Arkitekturaren ikuspegitik.
 - 3.2. Kontrol leku moduan.
 - 3.3. Sistema arautzaile moduan.
 - 3.4. Segurtasuna osasunaren gainera.
 - 3.5. Emakumea gartzelan.
- 4. Ardura duten langileak.**
 - 4.1. Gartzelako funtzionarioak.
 - 4.2. Gartzela-erakundeetako zuzendaritzak.
- 5. Gartzela, gune deshumanizatua.**
 - 5.1. Arartekoa.
 - 5.2. Senideak.
 - 5.3. Salhaketa.

bigarren atala

- 6. Talde armatuko kide edo laguntzaile izateagatik preso daudenak.**
 - 6.1. Presoen gaia gatazka politikoaren testuinguruan.
 - 6.2. Motibazio politikoengatik preso daudenak.
- 7. Bergizarteratzea.**
 - 7.1. Hori aplikatzeko zailtasunak.
 - 7.2. Helburu politikoak.
 - 7.3. Intsumitu presoen bergizarteratzea.
- 8. Preso politikoei ematen zaien diziplinazko tratua zenbait ezaugarri.**
 - 8.1. Gradu araberako sailkapena.
 - 8.2. Urrutiratzea, sakabanaketa eta isolamendua.
 - 8.3. Zigorraren gehigarria.
 - 8.4. Presoak elkartzeko.

hirugarren atala

- 9. Gartzelaren arazoari aurre egin eta hura aldatzeko programaren plangintzarako edukiak.**
 - 9.1. Segurtasunaren gainera baldintzak leuntzea.
 - 9.2. Presoen zigorraren aringarriak erakundearen aurrean defendatu beharra.
 - 9.3. Esku hartu behar duten erakunde eta eragileak.

laugarren atala

- 10. Presoak bake-prozesuan.**
 - 10.1. Sarrera.
 - 10.2. Zenbait kasu.
 - 10.3. Niacro-ren txostenaren ondorioak.
 - 10.4. elkarriren ondorioak bake-prozesuan presoak jokatu beharreko paperari buruz.

bibliografia

elkarrikasi 9 1998ko abendua
argitaratzailea: elkarri. Madrid etorbidea 5, eskuin eskailera - tartep. 20011 donostia
tfnoa.: 943 45 93 75 faxa: 943 45 07 58
e-mail: elkarrit@encomix.es
egilea: Jose Luis Barrenetxea
erredakzio taldea: Zigor Agirrezabala, Marina Goikoetxea, Inesa Ariztimuño, Gorka Espiau, Aintzane Ezenarro, Fernando Rey.
maketazioa eta diseinua: elkarriko diseinu taldea
inprimategia: Antza (Industrialdea 2.pab.- 20160 Lasarte).
ISSN: 1134-802X. lege gordailua: SS-44/95



sarrera

Dokumentu hau ez da bereiziko ikuitzen duen gaiagatik. Baina, gartzelaz oso gutxi idatzi eta hitz egiten da, kontuan hartzen badugu zein latza den arazoa. J.M. Biurrun, EHUKo irakasleak adierazten duen bezala, «ezagutu bai baina kontuan hartzen ez den errealitatea da... harrigarria litzateke jakitea zein gutxitan entzuten diren gartzelaren ezaugarri eta bizi-baldintzei buruzko galderak. Garrantzi gutxiko gaia da, eta horregatik diskurtsoa ere ez da erakargarria». Bestalde, Arartekoak «Euskal Herriko gartzelen egoera» dokumentuan «gizarte zibilarentzako informazio eta kontzientziario lan pedagogikoaren beharra» dagoela azpimarratzen du «zenbait gizarte-pertzepzio eta elkartasun eza adierazten duten jarrerak aldatzen laguntzeko».

Gure lan honek zenbait gauza azpimarratu nahi ditu, horietan sakondu. Preso askoren errealitateaz jabetzeko, modu hotzean eta emozioek baldintzatu gabe ezagutzeko, beharrezkoa da arazoa «gatazka politiko» baten barrenean dagoela aintzat hartzea. Presoak behe-mailako klase sozialetakoak izatea ezin da «ezaugarri psikologiko» edo «nortasunaren egituren» bidez argudiatu. Ezin bazaie leporatu arazoaren muina jokabideei, preso gehienak gizarte-maila pobreetakoak izanik, modu berean ezin da ulertu zergatik dauden motibazio politikoko seiehun preso, besteren artean aldagai politiko eta instituzionalek duten garrantzia aztertu gabe.

Foucault, Valverde, eta beste maila batean Biurrun, txosten honek gordetzen dituen testu interesgarrien iturri izan dira. Parrafo esanguratsu asko, eremu teoriko eta praktikotik egin diren azalpenen —emaitza bezala espetxearen argazki negargarria eman dutenen—, ispilu dira.

Lehenengo atalean pertsona eta kolektibo askoren kritikak nabarmentzen dira, gartzela krudeltasun zibilizatuaren eredu direla baitiote. Eztabaidagarria izan daiteke gartzela ikuspegi ekonomiko batetik errentagarria den ala ez, edo ikuspegi sozialetik eraginkorra den ala ez, baina ikuspegi gizartiar batetik bidegabekeria bat da zalantzarik gabe. Bigarren atalak errealitate hau gatazka politiko eta biolento batean kokatuta aztertzen du, pertsona talde handia baitago, ETAkide edo laguntzaile izateagatik zigortua edo akusatua dagoena. Hirugarrenak proposamen zehatz batzuk jasotzen ditu, haietariko gehienak behala indarrean jar litezkeenak, batez ere 9.1 azpiatalean jasotakoak eta baita 9.2an jasotako beste batzuk ere. Beste batzuk, denbora laburrean aplikatu

tezke, legegintzaldi batean. Laugarren atalean presoek bake-prozesuan jokatzen duten paperari buruzko gogoetak jasotzen dira.

Gartzelaren Instituzioaren azterketa orokor bat egin da. Ez da egin banan-banako azterketarik, gartzela hobeketa eta txarragoak bereiztera bultzatuko baikintuzke. Gartzela zuzenagoa izan dadin lanean ari diren pertsonen ahaleginak gutxietsi gabe, lan honek defendatzen duen tesia zera da: gartzela ez dela preso eta presozairen arteko gatazka bat, baizik eta politika instituzional baten eta aukera ideologiko baten ondorioa. Gartzela egungo sistema politiko sozial eta ekonomikoari eusteko behar diren instituzio bat bezala aurkezten da, baina ez da ahaztu behar desberdintasun sozio-politikoak eta ekonomikoak direla jendea gartzelara eramaten duten arrazoi gehien atzean dagoen oinarria.

elkarrik, bakearen aldeko erakunde den aldetik, gartzelaren errealitatea Euskal Herriko gatazka politiko eta biolentoaren ikuspegitik aztertzeari ekin dio kapitulu batean. elkarrik ETAre inguruko presoak politikoen izaera politikoa baieztatzen du; isolamendua, sakabanaketak eta urruntzeak arbuiatzen; eta pertsonari baino gehiago kolektiboari zuzendua dagoen bergizarteratze politika salatzen du. Azkenik presoak hurbiltzearen alde dago, bai ikuspegi gizartiar batetik, baita ikuspegi politiko batetik ere, presoen arteko hausnarketa eragin eta gartzela barruko eta kanpoko instantzia politikokoekiko elkarriketa bultzatzen laguntzen duelako.

Testua imprentara eramateko prest genuenean, euskal gatazkan aldaketa garrantzitsuak gertatu dira. ETAk irailaren 16an aldarrikatutako su-eten mugagabeak, garai berri bati hasiera eman dio, eta pentsatzekoa da, honek guztiak eragin zuzena izango duela euskal presoan auzian. Euskal gatazkan aldaketa historiko bat bizi du: euskal bake-prozesuari atea irekitzen ari zaio. Hemendik aurrera, zalantzarik gabe, euskal presoak bake-prozesuaren edukietako bat izango dira, eta modu berean, hogeita hamar urtetako gatazka politiko eta biolentoari amaiera emango dion konponbidearen parte izango dira. Testuan datorren guztiak baliogarria izaten jarraitzen du egungo egoeran, nahiz eta bake-prozesua martxan jartzear dagoen egoera honetan atal berri bat sartzea bultzatuak ikusi garen. Atal honetan gatazka politiko eta biolento baten amaierako textuinguruan presoan egoera aztertzen da. 10. atala da, hain zuzen ere, bake-prozesuan presoan egoerari buruz ari dena.



lehen atala

1. Tormentuaren sistematik gartzelaren sistemara

1.1. Zigortuen tormentua

Tormentua eta heriotza izan dira zigorrak ordaintzeko ohiko moduak eta, nahiz eta neurri handi batean krudelak ziren, jendearentzat zentzagarri izan nahi zuten, besteentzako eskarmentu. Bide batez, gainera jende aurrean damutzea eta egindakoa ordaintzea zen helburua. Zigorra eta tormentua ez ziren ezkutuan burutzen ziren ekintzak, baizik eta jendaurrean egiten zirenak. Justizia egiteko eredia horixe zen, eta askotan epaia ematen zuen epaimahaia bertan zela burutzen ziren. Hurrengo lerroetan «Gazette d'Amsterdam»en 1757ko apirillean Parisko Elizaren aurrean egin zen exekuzio batez egindako kronika bateko zatirik leunenetakoa jasotzen da. Honela dio Damiens-en tormentuaz: «*Borreroak berak burdinazko kutxare batekin pertzetik irakiten zegoen likidoa hartu eta zauri bakoitzaren gainean ixuri zuen, erruz (...) Azkenik, gorpua laurdenkatu zuten. Gorpua laurdenkatzen denbora luzea eman zuten, erabiltzen ari ziren zaldiak ez baitzeuden tiratzera ohituak; horregatik lau ez baizik eta sei zaldi jarri behar izan zituzten, eta, aski ez izaki, eta indarrez hautsi behar izan zituzten gizarajoaren gorputzadarrak, nerbioak ebakiz eta hezur-giltzak ahizkorakadez moztuz...».*

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran zigor-inguruko festa ilun horiek desagertzen joan ziren. Sufrimenduaren ikuskizunak eta jendaurreko damuak itzalera pasa ziren pixkanaka. Zigorrak antzerkia izateari utzi zion, baina ez gizatasunezko arrazoiengatik, baizik eta horrelako ospakizunak gero eta ulerkaitzagoak zirelako, zigortzen zen delitua bera baino askoz ere basatiagoak zirelako. Edozein kasutan ere, populazioak nola erantzun zuten beldur zen boterea, zeren eta ikuskizun hauetan kriminala eta borreroa maila berean jartzen baitziren, eta berdin epaileak eta hiltzaileak. «*Burdinazko uztai lepoan zutela, koloretako arropaz jantziak eta kanoi bala bat hanka bati lotuta arrastaka zutela, zigortuak lan egitera behartuak, bideak konpontzen edo eta alde batetik bestera oinez*» (Foucault). Pixkana-pixkana desagertu ziren ikuskizun negargarri horiek.

1.2. Erreforma penala

Aurreko deskribapenetik Leon Faucher-ek «Paris-eko gazte kriminalen etxerako araudia» egin zuen arte ia mende oso bat igaro zen. Araudi horrek delitua zigortzeko etxe batean denbora nola erabili zehazki egituratzen zuen, etaaldi berean, zigortzeko eskubideari justifikazio moral berri bat aurkitu zion. Kode moderno horien erredakzioa 1769an egin zen Errusian, 1780ean Prusian, Pansylvanian eta Toscanan 1789an, Austrian 1788an eta Frantzia 1791an.

Zigorrak eta ondorioak egokitzeko teknika berriak bilatzea, zigortzeko artea arautu, zehaztu eta hedatzeko oinarri berriak ezartzea, etaaldi berean horiek homogeneousatzea da XVIII-XIX. mendeko erreformatzaileen helburua. Kostu ekonomikoa eta politikoa gutxitzeak, bere eraginkortasuna areagotuz eta hedabideak biderkatuz, zigortzeko ahalmenaren ekonomia eta teknologia berri bat eskatzen zuen.

Handik aurrera zigorraren legitimazioa ez da izango subiranoaren mendekua; gizartearen babes eta segurtasuna izango dira zigortzeko arrazoiak.

Min egitea prozesu penaleko atalik ezkutuen izatera pasatuko da. Jendaurreko heriotzak alde batera utzi eta gorputza ahalik eta gutxien ukitzeko printzipioa ezartzen da; pertsona jotzearen xedea informazioa, laguntza edo damutzea lortzeko izango da eta kasu horietan ere, gorputzaren sufrimendua praktika penalaren atal bat besterik ez da izango. Horrela, presondegiak, isolamenduak, kanporatzeak, espetxeratzeak eta ezkutuko bortxazko lanek ez dute lotura zuzenik izango gorputzaren zigorrarekin, nahiz eta zigor fisikoak direla pentsa daitekeen. «*Sufrimendu fisikoa, gorputzaren mina, ez da izango zigorraren elementu funtsezkoa, ez behintzat onetsia*» (Foucault).

Presondegia, askatasuna kentzeko sistema bezala, indarra hartzen joango da, baina hala ere erreformatzaile batzuek kontrako jarrera izango dute. Horien ustez, presondegia «*ez da gauza delituaren espezifikotasunari erantzuteko, gizartean ez du*

Zigorraren eta tormentuaren ospakizunak gero eta ulerkaitzagoak ziren, zigortzen zen delitua baino askoz ere basatiagoak zirelako





eskarmenturik sortzen eta beraz gizartearentzat alferrikakoa eta garestia da, kontuan izanik presoak egonean egoten direla. Gainera gartzelazainen bidegabekerien menpe gelditzen dira, eta tirania ariketa bat izan daiteke eta ondorioz, zigortuen grina txarrak handitu eta ugaritu ditzake». (Erreformatzaileak)

1.3. Presondegiaren sorrera

Azkenean, presondegia kode berri guztietan ezarri zen, XVIII-XIX. mendeetan gertatu zen mundu kontzepzio aldaketaren ondorioz. Pikota Frantzian 1789an indargabetzen da behin-betikoz, Ingalaterran 1837an eta jendaurreko damua 1830ean desagertzen da Frantzian. Austria, Suitza eta Ipar-Amerikako estatu batzuetan zeuden lan

publikoen zigorrak XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. hasieran bertan behera utzi ziren. Gartzelei buruzko kongresuen garaia da, gartzela-politika baten bultzadaren garaia.

1830ean marka indargabetua da Ingalaterran eta Frantzian 1832an; Ingalaterra 1820tik aurrera ez zen ausartu «traidoreen tormentu handia» egitera. B. Rush-ek zera zioen 1787an «*urkabea, pikota, zartailua, kurpila eta abar, tormentuen historian herrien eta gizaldietako basakeriaren adierazle bezala eta arrazoia eta erlijioak giza-izpirituan duen eragin ahularen erakusle bezala agertzeko itxaropena besterik ez zait geratzen*». Zartailua geratzen zen zenbait zigor-sisteman, ez besterik (Errusia, Ingalaterra, Prusia). Aldaketa handiena 1760-1840 bitartean gertatu zen, baina artean aurreko sistema ez zen erabat bukatu eta zenbat hondar gelditu ziren. Gillotinak, heriotza-tresna azkar eta eraginkor gisa, Frantzian «heriotzaren etika berria» ekarri zuen.

Beste garai batzuetan presondegi eredu desberdinak aurki bagenitzake ere, urte hauetan hasi zen atxilotze-zigor bat bezala onartzen. Presondegia lorpen gizatiar bat bezala ikusten da, Foucault-entzat «*gizarte zibilizatuen zigorra*»ren jaiotza da eta Jesús María Biurrun, EHUKo irakaslearentzat, «*krudeltasun zibilizatuaren psikopatologiarako urratsa da*». Askatasunaren galerak berdin eragiten dio behartsuari edo aberatsari, berdintasunik handiena daraman zigorra da, askatasunaren galera guztientzat baita mingarri. Badirudi presondegiak sufrimendua demokratizatu nahi

duela, baina errealitateak erakutsiko digu minaren demokratizazioaren hartzaileak, salbuespenak salbuespen, beti izango direla klase baxuenetako pertsonak eta disidente politikoak.

Helburu bikoitz bat esleitzen zaio presondegiari: helburu juridiko eta ekonomikoa alde batetik eta tekniko eta diziplinazkoa bestetik. Askatasunaren ukapena zigor bihurtu nahi du eta, gainera, pertsonen eraldaketa teknikoa bultzatu nahi du. Presondegiak erakunde zurrun eta osoak izan behar dute, non diziplina-aparatuak pertsona zigortuarengan zuzen eta zehazki aritzea posible izango duen. Presoen eguneroko bizitza, jarrera morala, ametsa, ekintzak, atsedena, otorduen iraupena eta kalitatea, lana, otoitz denbora, hitzaren erabilera eta bere pentsamendua ere kontrolpean egoten dira, jantokitik gelara, lantokira edo patiora egiten dituen ibilbide motzetan. Pertsona bere osotasunean hartuko duen heziketa beharrezkoa da. Horrela, praktikan, presondegiak askatasunaren ukapen hutsa baino zerbait gehiago izan nahi du.

1.4. «Gartzelazain ahalguztiduna»

XIX. mendearen hasieran zenbait proiektu garatu ziren, zeinetan gartzelako administrazioak zigorra modu autonomoan ezartzeko ahalmena baitu. Charles Lucas-ek (1836) eta Bonneville-k (1846), besteak beste, kode penal modernoaren oinarriak ezartzen dituzte. Gartzela-erakundearen independentzia aldarrikatzen dute, hots autonomia administratiboaz gain, zigorrak ezartzeko askatasun osoa ere bai. Filosofia berria gestionatzen duten erremintak, eta oinarrian egun ere indarrean jarraitzen dutenak, honako hauek dira:

1. Isolamendua eta sakabanaketa. Kanpoko mundutik, legearen haustura eragin duen guztitik eta konplizitateetatik urrun dago. Elkartasunezko loturak sor ditzaketan elementu guztietatik isolatzeak sakabanaketaren alde aritzea dakar. Gaizkileen gizarte-sare antolatu bat dago, presondegia desegituratzen saiatzen den gizarte-sarea. Bakardadean murgilduta, presoak hausnarketa egiten du, eta isolamenduan etorriko zaizkio bihotz-zimikoak. Isolamenduak atxilotua eta bere gain dagoen boterearen arteko bakarkako elkarrizketa ziurtatzen du. Botereak kontrolatzen dituen harremanak dira baimentzen diren bakarrak, eta bakarkako ekintza beharrezko batek bakarrik hauts ditzake presondegiaren kontrolpean ez dauden harreman guztiak. (Foucault)

2. Lana. Gaueko otoitza, egun osoa instrukzioan aritu ondoren, gogoeta mesedegarriak eta etengabean zereginetan egotea, honi guztiari isolamendua eta sakabanaketa gehituz; faktore horiek guztiak, batera, delituaren ordainaz gain errudunaren zuzenketa ere lortuko dute.

Presondegiak sufrimendua emokratizatu nahi du, baina errealitateak erakutsiko igu minaren demokratizazioaren hartzaileak, salbuespenak salbuespen, beti izango direla klase baxuenetako pertsonak eta disidente politikoak





3. Zigorra manipulatzeko ahalmena. Giltzapetuaren zigorraren moldaketan eskuhartze zuzena izatea zigor-erakundeak beti aldarrikatu izan duen zerbait da. Hori bereziki nabaria da disidentzia politikoagatik preso daudenen kasuan. Zigorra administratzea izan da «zuzenketa-lanaren» oinarrietariko bat, eta halaxe egingo du instantzia judizialen kontrol zuzenetik at. Esan daiteke zigor-erakundeak, atxiloketan zein presondegian, erakunde judiziala kolonizatu duela.

2. Eskumen judizialeatik gartzela-eskumenetara

2.1. Gartzelaren fenomenua. Zigortzeko eskubi-dea

Gizartearen aurrean justifikazio zaila eta ekonomikoki zalantzazko errentagarritasuna zuen zigor-sistema gainditzeko heldu da gartzela. Zigortuen tragedia leuntzeko saiakera bat da gartzela (zigortuen kateak, heriotzeraino daramaten torturak), izaera gizatiarra eta altruista zuten taldeek bultzatua. Botereak zigortzeko eskubide osoa bereganatzen du, zigorra ulertzeko kontzepzio berritik, teoria mailan behintzat, hasiera bateko ikuspuntu erabat zigortzailetik berreskuratze-filosofia batera pasa baitzen.

Erakunde judizialak dira zigorrak eta zehapenak ezartzen dituztenak. Epailleek epaia ematen duten une beretik, pertsona zigortua handik aurrera eta zigorra amaitu bitartean, bere bizia erabat baldintzatuko duten egoera konkretu batzuetara bideratzen dute. Sistema judiziala epaia ematen duen erakundea da, bete beharreko zigorra ezartzen duena, eta zigortuaren bizitza zein egoeratan eta zer baldintzatan garatu behar den esaten duena. Hori dela eta, esan ohi da «legeak erruduna bidali duen presondegira joan behar duela presoaren atzetik». Baina erakunde judizialak ez du segitzen zigortua etorkizunean presondegian izango duen bizitzan. Aitzitik, gartzela-erakundearen esku uzten du, eta hori izango da epaian jasotako askatasun ukapena kudeatuko duena.

2.2. Gartzela-erakundearen independentzia adierazpena

Zigorra inguratzen duen errealitateak epailleak zigortuarengan zuen erabateko agintea galtzea eragiten du, eta haren ordez, gartzelako botere administratiboa izan ohi da giltzapetuarengan ahalmen guztiak bereganatzen dituena. Horrek gartzelaren independentzia aldarrikapenarekin bat egiten du, non gartzela-zuzendariek, autonomia administratiboaz gain, zigor-subiranotasunaren zati bat bereganatzen duten. Gartzelako maki-

neria handia epaia eman zuten elementu judizialeetatik bereizten da eta presondegiko funtzionamenduari lotzen zaio. Erakunde judizialekiko autonomiaren erakusle dira «*presozainen alferrikako indarkeriak edo leku itxi batean pribilegioak dituen administrazioaren despotismoa*». Gartzela indartsu sentitzen da, botere judizialaren eskuhartze saiakera ahulen aurrean.

Zigor-erakundeetan estamentu judizialen eskuhartzea «presondegietako gehiegikeriak kontrolatuko zituen» figura baten bidez egin nahi izan zen. Horrela, erreforma egin zenetik mende batera, zigorrak ezartzeko epailearen figura sortuko da, gaur egun Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epaillea bezala ezagutzen duguna. Figura honek aurrerapena adierazten duela ukatu gabe, bere lanaren balantze negatiboa egin behar da. Presoaren egiazko babesaren salbuespen urriak alde batera utziz, baliabideen eta botere erreala-
ren urritasunak, epaileak presondegietako zuzendaritzetan duen ahalmen eraginkorra hutsalaz izatea eragiten du.

Erakunde judizialak ez du segitzen zigortua etorkizunean presondegian izango duen bizitzan. Aitzitik, gartzela-erakundearen esku uzten du

Apaingarri gisa gelditu nahi izan ez duten epaile batzuk dimittizera behartuak sentitu dira. «*Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailen artean zenbat mugatzen dira Fiskalen informeak errepikatuzera, hots, presoaren eskaerei ezetz esatera, espetxeko zuzendaritzak ematen dituen argudio berdinak erabiliz? Presondegietako Talde Teknikoen argudioen onarpen mekanikoak, inolako dudarik gabe, gure gartzela-legeria liberala indarrean sartzea oztopatzen du*» (M. Carmona, Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epaillea, CGPJeko bokala).

3. Bizitza gartzelatan

3.1. Arkitekturaren ikuspegitik

Presondegiak argitu beharreko bi aurpegi ditu: batetik, zigorra bete behar den tokia da; eta bestetik, zigortuak behatzekoa.

Arkitektura aldetik ere dena zigorraren ikuspegitik eraikia dago: presondegiko espazioa handia izan daiteke, baina presoari egokitzen zaiona beti da ahalik eta txikiena. Ez gelak, ez iraganbideek ezta patioek, ere ez dute mugimendurako aukera handirik eskaintzen. Bestalde, espazioaren kalitate txarrak eta materialek, zigor helburu zehatz bat





betetzen dute. Eraikuntzaren eta altzarien mantentimenduaren arretarik ezean badu zerikusirik presoaren motibazio urriak, baina batez ere erakundearen axolagabekeria da horren arduradun. Kiratsek, gartzelako usain sarkorrek, zikinkeria eta alferrikako ate-soinu bortitzek uneoro gogorazten dute gartzela errealitate oso bat dela eta inor ezin dela mementu batean ere urrundu errealitate gordin horretatik.

1991ean Ministroen Kontseiluak onartutako «Presondegien Sorrera eta Amortizaziorako Egitasmoak» —160.000 milioiko aurrekontua duenak— gartzela eredu berri bat sortu nahi du. Eraikuntza eredu erradial batetik —non eraikinak behaketa zentru batean elkartzen diren, egitura arkitektonikoaren erdian, eta presoa eta funtzionarioaren arteko harremana zuzenagoa eta pertsonalagoa den— modulu itxietako diseinu arkitektonikoa duen eredu baten aldeko urratsak ematen dira. Beste eredu hau fisikoki deszentralizatuagoa da, ez da hain beharrezkoa funtzionarioaren presentzia galerietako kontrol eta zuzenketa lanetarako, eta bertako instalazioak ez dira erdigune ge-

ometriko batean elkartzen, behaketa erdigunean baizik. Behaketa erdigune honetan, bideo kamara eta pantailen bidez presoaren intimitatearen azken txokopak bortxatzeko ahalmena dute.

Navalcarnero

eta Valdemoroko presondegiek erakusten dute gartzela berrien lehenetsunaren artean ez dagoela presoaren bizi-baldintzen hobekuntza. Errealitatean, basamortuen erdian eraikitako eta hirierdiguneetatik aldentutako makro-gartzelak desoreka beste elementu bat dira bai preso eta hauen senideentzat, eta baita funtzionariarentzat ere. «*Helburua ez da presoa giltzapean egotea bakarrik, baizik eta berak horrela ikus, barneratu eta bizi dezan, errealitate horretatik mentalki ere alde egin ez dezan*» (J. Valverde, Madriliko Unibertsitate Autonomako Psikologi Fakultateko irakaslea)

3.2. Kontrol leku moduan

Arkitektura diseinu zehatz honen helburuak zaintza eta kontrola dira. Presoaren kontrol iraunkorra posible egingo duen diseinua da, eta gainera giltzapetua bera konturatzen ez den unetan ere, behatua izan daiteke. Honek jokabideen aurpegi desberdin guztien banakako azterketa egite-

ko aukera ematen du. Sakabanaketa praktikara eramanez aurretik ETArekin harremanak zituzten presoak bi presondegitan bildu zituzten, bata emakumeentzat zen eta bestea gizonentzat eta «*Kontrol zehatz baten pean izan ziren, eta preso bakoitzaren inguruan jasotako datuek euren izaera, zaletasun, harreman pertsonal eta egoera konkretuen aurrean erantzuteko gaitasunaren erradiografia bat osatzen zuten*». (Senideak)

Banakako eta taldeko ikerketa bat egiteko, isolamendu sentsazioa lortzeko, eta behatzen duen erakundearentzat garden bihurtzeko proposa bihurtzen da gartzela. Eredu panoptikoa da, 1830-1840 urteetan sortua eta ia presondegi gehienek arkitektura eredu. Gaur egun, elektronikako aurrerapenak eta ikus-entzuteko teknologiak eraikin panoptikoaren aukerak biderkatzen ditu. «*Erdian dorre bat dago, eraztunaren barnealdean irekitzen diren lehio zabalekin, atxilotuak bere begien aurrean izango du behatua deneko erdiko dorrearen irudi luzea. Ez du inoiz jakin behar une horretan begira ari zaizkion ala ez; baina ziur egon behar du beti izan daitekeela behatua*» (Foucault). Orduan arkitekturak eta gaur teknologiak «disziplinaren inteligentzia harrian gauzatzea, arkitektura boterearen gestioari garden bihurtzea» dute helburutzat. (Foucault)

3.3. Sistemaren arautzaile moduan

Giltzaperatzean, zigorra lehengoratzearen gaitetik dago. Gartzela aparatua judizialek kanpoko erreminta bat bilakatzen da «*itxiera araudi bat, non presoa aurreikusi ezin dituen jokabideen menpe egongo den*» (Foucault).

Gartzela-sistema osoa eta itxia dela esan ohi da. Erakundea bera da diziplinazko arauak, zaletasunak, askatasunak, mesedeak, eta diskriminazioak kudeatuko dituen. Eta honek, presoaren egoera somatiko eta psikologikoen txartzea dakar askotan, zigor-erakundearen ikuskapenetako txostenetan gutxitan azaleratzen diren arren. Zigor-araudiaren interpretazio subjektiboak barne-barneko espazioaren bortxaketa, eraso bihurtutako miaketa, komunikazio bide iraingarrien inposaketa, estres egoeretara bultzatzea, behartzeak eta gradu eta egoera desberdinetako isolamendua posible egingo ditu. Hau guztia ohiko praktika bat bilakatzen da eta diziplinazko zutabeen gainean soilik egingo dako eraikina orekan mantendu ahal izateko beharrezko bezala aurkezten da. «*Laburbilduz, presoaren lehengoratzea bultzatuko duten egitasmoak indarrean sartu baino lehen, presondegiak berak konpondu behar ditugu, hau posible bada behintzat*». (J. Valverde)

3.4. Segurtasuna osasunaren gainetik

Kiratsek, gartzelako usain sarkorrek, zikinkeria eta alferrikako ate-soinu bortitzek uneoro gogorazten dute gartzela errealitate oso bat dela eta inor ezin dela mementu batean ere urrundu errealitate gordin horretatik





Osasunaren osagarririk garrantzitsuenetako bat tratua da. Gartzelan, tratua eta bizi-baldintzak berak osasunaren kontrako eraso bat dira berez. Batetik, gorputzeko lesioak aipa daitezke, garbitasun baldintza eta kutsatzeko aukera handiak dau den bizi-baldintzen ondorio baitira. Bestalde, lesio sikologikoak, behin eta berriz osasuna babestu eta autokontrolatzeko mekanismoen haustura eragiten duten bizi-egoera gogor eta erasokorraren ondorio direnak. Osasuna beti egon da segurtasun baldintzen azpitik. Presondegian laguntza egokirik gabe, presondegiko ospitalera joateko oztopoekin eta kanpoko sendagileen bisitaldirik gabe, presoak ez du bermatua izango beharrezko laguntza, ez eta osasuna zaintzen lagunduko liokeen gutxieneko baldintzak ere. *«Gartzelaren arrazoien menpe dagoen osasun sistema. Osasunaren profesionala behin-behinekotasunaren eta larrialdiaren arauetara egokituko da, hauek ekoizten dituen sistemari arreta kritikorik jarri gabe».* (J.M. Biurrun)

3.5. Emakumea gartzelan

Dokumentu honek presoez hitz egiten du eta, baliteke idatzian zehar agertu diren irudi gehienak gizonezkoenak izatea. «Salhaketa» presoen laguntzarako taldeak antolatutako «Bideo-forumen hirugarren astean» emakume presoei buruz hiru ponentzia aurkeztu zituen «emakumeak euskal gartzeletan» izenburupean, hauen errealitatea argitara eman nahian, zeren eta *«kontzeptu juridikoen neutraltasunaren azpian interpretazio maskulino bat dago».*

M^a José Carrerak dio *«Zuzenbide Penalaren ezarpenak, genero maskulinoaren arketipoan oinarritua izanik, emakumeak ez babesteaz eta gutxies-teaz gain, ez ditu kontuan hartzen hauen berezitasunak eta zigorren ondorioak larriagotzen ditu, delituen subjektu aktiboak izatera pasatzen direnean».* Gaur egun giltzapetutako populazioaren %10 bakarrik da emakumezkoa, baina presondegia gizonezkoentzat pentsatuak daudenez, *«logikoa dirudi gutxiengo baztertu bat bezala hartzeak gartzelaren munduan».* Dokumentuaren edukia- ren arabera, zigor-legerian haurdun daudenean edo eta ama direnean bakarrik dute tratu berezi bat emakumeek. Gainera, gizartearen gaitzespena handiagoa da delitua emakumeak burutzen duenean eta ondorioz presondegia- ren barruan tratu doilorra- goa ematen zaie.

Marta Aldanondo Nanclares-eko presondegia- ri buruz ari bada ere, aipatzen dituen gabeziak ia guztietan gertatzen dira: ez dago sekzio irekirik, ez dago ginekologia laguntzarik, garbiketarako tresnak, konpresak, tanpoiak, ez dira aski oinarri- ko beharretarako; jarduera akademikoetarako ge-

larik ez dute, irtetzeko baimenak lortzeko zailta- sun handiagoak dituzte; ez dute harrera-etxerik eta gartzela bakar batzuetan da posible haurra amarekin edukitzea.

4. Ardura duten langileak

4.1. Gartzeletako funtzionarioak

Gartzeletako langilea ere gogoko ez duen errea- litate horretaz jabetzen da. Gogorik eza eta bere eginbeharrak era atomatiko batean burutzea da arruntena. Presondegia- ren baldintza orokorrak hobetzeko motibazio berezirik gabe, baldintzak hobetzeko borroka horretan berak egin dezakee- na oso mugatua dagoela ere badaki. Erakundeek ez dute bultzatzen oinarritik abiatzen den propo- s a m e n i k .

Ondorioz, frus- trazioa dela- medio eta gi- zartean gaizki ikusitako lan bat burutzea- ren sentimen- duagatik, gart- zelako harre- manak aldat- zea oso zail egiten zaie.

Horrez gain, gartzeletako funtzionario etsituaren ondoan, funtzionario zirikatzaille eta liskartzalea dago, gartzelako bizi-baldintzak kaxkartzen eta gaiztotzen dituen.

«Nire ustez, gartzelak berarekin harremanetan jartzen den oro bazterten du: giltzapetua ezezik, presoazina eta gartzela-erakunde- en buru dauden politikoak ere bai. Agian, hori dela-eta, gartzela-erakunde- etako profesionalak lagunarte itxian murgiltzen dira (...) presondegia- ren egoeraren erru- dun gisa azaltzen dira; gartzelak justifikatu behar- ra sortzen zaie, beren burua ziritu beharra ikus- ten dutelako, kontuan izanik egiten duten lana gehien bat segurtasun eta zigor neurriak jartzea dela, eta momentu oro erru bat bilatzen ari dira aplikatu behar duten zigorra justifikatzeko. Ez du legeak lehentasuna, araudiak baizik. Hori dela-eta esan daiteke, legea kanpora begira eginda dagoen bezala, araudia dela barrura begira ezartzen dena. Hots, bati zapaltzailearen papera egokitzen ba- zaio —bere lan bakarraren muina kontrola baita— eta besteari zapalduarena. Bien artean ezin da ha- rreman onik izan, nahiz eta batzuen eta besteen asmoak bestelakoak izan daitezkeen». (J. Valverde)

Gartzelak presoarengan eragin txarra du, baina

Zigor-araudiaren interpreta- zio subjektiboak barne-bar- neko espazioaren bortxake- ta, eraso bihurtutako miake- ta, komunikazio bide irain- garrien inposaketa, estres egoeretara bultzatzea, be- hartzeak eta gradu eta ego- era desberdinetako isola- mendua posible egiten ditu





baita berarekin harremana duen funtzionarioaren ere. Gartzela Institutzioen Zuzendaritza Orokorrak 1995. urtean «Espainiar Espetxeetako Lan Baldintzak» izenburupean azterketa bat burutu zuen. Bertan argi ikusten da zenbait lan baldintzak eragina dutela osasun publikoan, besteak beste honelako sintomekin: «*estresa, babes falta, buru nekea, estura, loaren alterazioak, famili harremanak gaiztotzea eta zenbait sustantziaren kontsumoa handitzea*». Batik bat Sailen Arduradunak eta Barne Zaintzakoak dira baldintza hauek pairatzen dituztenak, eta gainera, jakitun dira beren lana ez dela batere estimatua gartzela-erakundetik kanpo.

Egoera hau are latzagoa da Euskal Herrian, izan ere, gartzelako langileak ahalik eta ordu gehien egiten saiatzen baitira, ahalik egun gutxienetan, horrela bertatik beren ohiko bizilekura egun batzuetarako joan ahal izateko. Euskal Herriko espetxeetan lan egiten dutenen %90 hemendik kanpo jaioa da, eta horregatik etengabe lekuz aldatzea eskatzen du eta bere lan-ibilbidean behin-behineko etapa

bat bezala daukate bertan igarotako denbora. Egoera honek eragin guztiz negatiboa du gartzelatan egiten diren jarduketan. Etengabeko langile-aldaketak izaten dira, eta bestetik besterena bezala ikusten dute lan-esparruan funtzionari nekatuek egiten duten lanaren kalitatean eragina du.

«*Funtzionarioaren eta presoaren arteko harremana gauza batera mugatzen da: beldurra. Eta beldurra, behar bezala aurre egiten ez bazaio, handitzen joaten da eta kroniko bihurtzen da. Kokiltzearen urrats hauek ematen dira: (1) funtzionarioak erakundearen araudiei jarraituz, preso kontrolatu, baztertu eta isolatzen du; (2) giltzapetuak hunkiberatasun handi bat garatzen du eta desobediencia, aztoramendu eta indarkeriara jotzen du sentimendu horren adierazpide gisa; (3) jokabide eta egoera horiek funtzionarioengan eragina dute, eta tentsio emozionala, suminkortasuna eta oldarkortasuna areagotu egiten dira, horretatik espero daitezkeen ondorioekin*». (J.M. Biurrun)

Hori horrela bada ere, bidezkoa da onarpena eta laguntza eskaintzea «*horrelako egoera zailetan eta hain laguntza gutxirekin gartzelako egoera hobetzeko borrokatzen diren funtzionarioei (...)* Gartzelarik dagoen bitartean garrantzitsua da gu hor egotea, nahiz eta askotan ezintasunaren sentimenduak gainditzeko gaituen hainbat eta hainbat gazte sekula bergizarteratuko ez direla ikustean

(...) eta presoondegiak burutu ezin ditzakeen gauzak praktikan jarri behar dira, pertsona hauei gizarteak gehienetan ukatu dizkion aukerak emateko». (Valverde)

4.2. Gartzela-erakundeetako zuzendaritzak

Gartzela langileria espezializatua behar duen erakundea da eta ardura dute karguak presoengan dute gaitasunaren arabera banatu beharko lirateke. Hala ere, kasu batzuetan, ez da gaitasun profesionala izaten politikoei kontuan izan ohi dutena karguak eta ardurak banatzerakoan. Gehienetan, gartzelako «langile adituak» izendatzerakoan, beste batzuk izaten dira irizpide nagusiak: politikoki zer komeni den, mesedeen ordaina edo gartzela estrategia konkretu batekin hastea. Gartzelako beharretatik at dauden helburu politikoen arabera mantendu, tokiz aldatu edo kentzen diren kargu politikoei izan ohi dira, eta ondorioz, ezer gutxi egin daiteke gartzelako bizi-baldintzak hobetzeko lan iraunkorra bultzatzeko.

5. Gartzela, gune deshumanizatua

5.1. Arartekoa

Arartekoaren bulegoak —EAEn Estatuko Herri Defendatzailearen parekoa— egin zuen «EAEko gartzelako egoera» izeneko txostenean deskribatzen diren egoera latz gehienak agertzen ditu. Presoondegiak eraldaketa gutxi izan ditu eta politikoei, erakundeek eta agente sozialek ez dute gai honetan gehiegi sartu nahi, kontzientzia lasai edukitzeko errealitate gogorregia aurkituko dutela susmatzen baitute.

Txostenak bi helburu azpimarratzen ditu bere ikerketan:

- Bazterkeriara eta zokoraturik bizitzera kondentatuak dauden pertsona askoren adierazpide eta ahotsa izatea.
- Elkartasunezko kontzientziak astintzea, euskal gizartearen gehiengo ezin baita bizi errealitate anker honi bizkarra eman.

Bost elementu aipatzen ditu arazoaren sustrai moduan:

1. Gartzela-sistemaren isolamendua eta iluntasuna eta gizartearekiko lotura eza.
2. Bitartekoak gutxi dira, nabarmen, populazio handiegiaren beharrei erantzuteko.
3. Gartzela-erakundearen antolakuntza akatsak.
4. Legearen eta errealitatearen arteko aldea.
5. Presoondegietako bizi-baldintzetan hainbat arazok duen eragina geroz eta handiagoa (droga edo giltzapetuen osasun egoera).

Txosten honek egiten dituen proposamenetako

Legeak ez du lehentasunik untzionarioaren ekimenean, araudiak baizik





batzuk:

- Gartzelak gainezka egon daitezen galaraztea.
- Zigorrek etxetik ahalik eta hurbilen bete daitezen saiatztea.
- Osasunaren babesak ziurtatzea.
- Gartzeletako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epaileari bitarteko material eta giza baliabide gehiago ematea bere lana egin dezan.
- Erregimen irekiaren eta baldintzapeko askatasunaren ezarpena bultzatzea.
- Gartzelatik kanpoko pertsonetikiko komunikazioa bultzatzea.
- Lehenengo gradua ezartzeko bidea murriztea.
- Diziplina-erregimena eta zehapen-prozedura berriz aztertzea, beti ere ziurtatuz defentsarako eskubidea eta erakunde zigortzailearen inpartzialtasuna.

5.2. Senideak

Beste alde batetik, euskal preso politikoen senitar-tekoen elkarrekin, «Senideak», 1995eko martxoan Navalcarnerori buruz egindako txostena errealitate zabalago baten erakusle da, elkarrekin eskura izan dituen beste txosten batzuk bezala. Txosten horretan honako gaiak aipatzen dira:

1. Jendea katxeatu egiten dute eta erabat biluzarazi.
2. Isolamendu-zeldetan bizi-baldintza ezin kaxkarrogoak izaten dituzte presoek.
3. Gartzelan zelda aldaketak izaten dira, noiznahi eta inolako arrazoirik eman gabe.
4. Noiznahi presoek zenbaketa egiten da, tente jarraziz.
5. Telefonozko komunikazioen zein vis a vis-en murrizketak.
6. Gartzelaz kanpoko sendagileen zainketa izateko eskubidea.
7. Kirol-instalazioetara sartzeko eskubidea.

Beste arazo batzuk:

- Babes juridikorik eza eta arbitrariotasuna.
- Zenbaketak, katxeoak eta miaketak, eguneko gutxienez.
- Gartzeletako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailearen moteltasuna edo atentzio falta, edo horren ezezkoak.

5.3. Salhaketa

Preso sozialen eskubideen aldeko elkarrekin aitzindaria da honako hau. 21 oinarritzko proposamen egin ditu Salhaketak, eta haietatik hurrengo hauek jaso ditugu:

- Zigorra jatorritzko lekuan betetzea.
- Isolamendu-zeldetako zigorrak desagertaraztea.
- Zehapen-prozesuetan berme judizialak ziur-

tatzea.

- Preso askoren bizi-baldintza lazarriak desagertaraztea.
- Giltzapetuen babes judiziala ziurtatzea.
- Presondegi batetik besterako leku-aldatzeen baldintzak hobetzea.
- Desagertaraztea senitar-tekoenganako praktika laidoak, baita horiek katxeatzeko edo biluzteko aginduak ere.
- Zigor moduan komunikazioaren murrizketak desagertaraztea.
- Gartzeletako bizi-baldintzak zaintzeko epaitegiaren figura indartzea.

6. Talde armatuko kide edo





bigarren atala

laguntzaile izateagatik preso daudenak

6.1. Presoen gaia gatazka politikoaren testuinguruan

Presoen gaia era ez traumatikoan gainditu nahi duen edozein azterketak muga juridiko eta penalak gainditu eta bere osotasunean hartu behar du bake-ikerketan «gatazkaren hirukia» deritzaiona; burutzen diren ekintzen izaera, burutu dituzten aktoreen erabakia eta ekintza horiek burutzerara eraman duten

bateraezintasunak, alegia. Gatazka bortxa dagoelako bizi dugu ala bortxa gatazkaren ondorioa da? galdetzen zuen kaleko enfronta-

mentuen inguruan elkarrik kaleratutako dokumentuak. Bi gauzak ziurrenik. Hau dela-eta, presoen gaia gatazkaren gai orokorretik ez bereiztea proposatzen da. Eta hau esaterakoan, jabetzen gara ez gara bortxaren errealitatearen aurrean bakarrik jartzen baizik eta batez ere gatazkaren errealitatearen aurrean. J.P. Lederach-ek —Eastern Mennonite University-ko Gatazken-Konponbide Programaren eta Batzorde Mennonita Nagusiaren Nazioarteko Adiskidetzeko Zerbitzuaren Zuzendaria— defendatutako «gizarte gatazka kronikoak eraldatzeko marku orokorra»ren ideia, gatazka zehatzak konpontzeko lagungarri suerta daiteke.

«ETAren biktimak», «Estatuaren biktimak», «terrorismoaren biktimak», edo eta «bortxaren biktimak» bezalako kontzeptuek gatazka zatitzen dute, jarrera biktimazalera daramate, eta adiskidetzeko orokorren helburutik urruntzen gaituzte. «Gatazkaren hirukia» bere osotasunean hartzen ez bada, biktimen eta euskal presoen arazoa, oso zaila izango da konpontzen.

Zauriak gaizki ixtea ez baldin bada gomendagarria, are gutxiago irekiak uztea. Epe motzera elkarrikeria ukatzen dutenek, gatazka bere osotasunean aztertzeari uko egiten diotenenk, zauria kronikoa bihurtzen laguntzen dute.

6.2. Motibazio politikoengatik preso daudenak

Preso politikoaren ezaugarria bere zigorraren oinarri ideologikoa da. ETAko presoak euren ekintzengatik daudela preso eta ez bere ideiegatik esatea egia da. Baina egia da ere, euren ekintzak ez dutela inolako azalpenik arrazoi ideologikoetara jotzen ez badugu.

ETAko presoak preso politikoak dira elkarrirentzat. Dokumentu honen azken zatiak ez luke zentzurik izango hurrengo oinarrietatik abiatuko ez bagina: (1) ETAko militanteak ez daude gartzelan bere ideia politikoengatik; (2) ETAko militanteak gartzelan daude bortxazko bideak erabili dituztelako euren ideia politikoak defendatzeko; (3) ez dago ideologiaz gain beste motibaziorik (aberastea, edonolako trafikoa, eta abar) euren ekintza armatuak azaltzeko; (4) hots, motibazio politikoa eta bortxazko jardura txanponaren bi arpegiak dira; (5) arrazoi politikoa da arazoa ulergarri egiten eta irtenbidea bideratzen duen bakarra.

elkarrik abiaburutzat dituen oinarriak honako hauek dira: (a) biktimen ikusmolde multilateralala; (b) gartzela eta poliziaren sailak gizatiarragoak egiteko beharra; (c) Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko idazkietan jasotako printzipioekiko fideltasuna; (d) alor juridiko-penalez gain, gatazkaren eraldaketa baikor bat lortzeko beharra dagoela jabetzea; (e) edozein irtenbidek gizartearen babes handi bat behar duela kontuan izatea. Testuinguru honetan kokatu behar dira gartzelari buruzko gure dokumentua eta honen ondorioak.

7. Bergizarteratzea

7.1. Ezartzeko zailtasunak

Bergizarteratzea preso dauden pertsona guztien eskubidea da, Konstituzioan eta zigor-legerian onartua eta ondorioz, gizarte mugimendu honen errespetua merezi du. Baina gizarte mugimendu honen ustez, euskal presoen auzia konpontzeko ez da bide eraginkorra ezta asegarria ere. Bestalde, «zigorra bere osotasunean betetzearen alde agertzea» ez da ez gizatiarra ez etikoa, ezta legezkoa ere, askatasunaren ukapen zigorrak bergizarteratzea eta berreziketara bideratuak egongo direla dioen sistema batean baikaude.

Bergizarteratzeari heltzeko edo ez heltzeko preso bakoitzak hartzen duen erabakia bere hitzetan bilatu behar da. Bere hitza da duen borondatearen

reso politikoaren ezaugarria bere zigorraren oinarri ideologikoa da



manipulazioaren inguruan izan daitezkeen susmoek ilundu ez dezaketen datu erreal bakarra. Manipulazio hau eman daiteke ala ez, maila baxu edo altuagoan, baina horren guztiaren aurretik, Biurrunek dioten bezala, *«presoaren autonomiaren onarpena dago, ez da erabaki behar bere onerako, era oso larrian eragiten dioten gaien inguruan, preso merkantzia politiko bat bezala erabiltzearen aurka agertu behar da eta etekin/mehatxu jokuaeren bitartez eginko txantaiak baztertu behar dira»*.

7.2. Helburu politikoak

Tormentuen garaian gertatzen zen bezala, bergizarteratzean presoaren askatasun pertsonala baino gehiago bere erabakiaren erabilera politiko bilatzen delako susmoa dago; presoaren hondoratze fisikoa eta psikikoa eragiten duen gartzela-egoera jasanezin baten azken ospakizuna da. ETako preso bere zigorraren aldarrikari egin nahi du bergizarteratzeak. Pikota, sua, edo kurpilarekin bezala, bergizarteratzearekin preso bere krimena publiko egitera kondenatzen da; bere aitortpenarekin jarraitze behartzen dute, baina orain publikoki; bere damua jendaurrean azal dezan, antzinako militantziari uko egin diezaion eta bere lagunak salatu ditzen eskatzen zaio. Bergizarteratzeak ezin du izan ez laido bat, ez salaketa bat, ez eta boterearen ezkutuko nagusitasunaren jendaurreko erakustaldi bat ere, askatasunaren truke presoari duintasunaren azken apurrak eskuratzeko. Zentzu honetan, espetxeko zenbait langile-estamentu agertu dira bergizarteratzeko bestelako prozedura baten alde. Alegia, preso ez luke inork behartuko bere egoera berri aldarrikatzera, lehenago ekintzaile armatu izana kritikatzera; aski izango luke gartzelan sartzeko oinarri izan ziren ekintzak berriro ez egiteko asmo sendoa agertzea.

ETako presoari bergizarteratzeko eskubidea onartzen zaie, baina modu irregularrean ezartzen zaie, bertatik emaitza politiko bat eskuratu nahi delako. Helburua preso kolektiboa, talde armatua eta inguruan duten laguntza ahultzea dela dirudi. Baina gainera, nahasia dirudi, zeren eta ezinezkoa da preso politikoak gizartearentzat berreskuratzea, «eraldakuntza tekniko», ezin baita zehaztu berregokitze eta berreziketa irizpideetan. Profesional taldeen eskuhartzea eta ardura psiko-sozialek, zein berregokitze, berreskuratze edo berreziketa hitzek, aplikazio-esparru zaila dute preso hauen kasuan.

Helburu horretarako, presoaren askatasunerako espazio bat diseinatu nahi da, lotura afektiboak mozuz, gizarte eta taldetik deserrotzea instituzionalizatuz; horrela erabateko bakardade eta bertan behera utzirik geratuko lirarteke. Bergizarteratzea bezalako helburu gizatiarra lortzeko bide bitxia benetan. Bide hauen bertuteak XVIII. mendeko erreformak

matzaileek kontuan izan zituzten: «ekintza zigortzailearen lehen helburua: indarrez burututako indibidualizazioa, boterearen kontrolpean ez dagoen harreman oro hautsiz».

Baldintza hauetan bergizarteratzea zigorra betetzeko beste era bat besterik ez da; ez pertsona bana-kakoei aplikatua baizik eta preso kolektiboan, ETan eta bere ingurunean min egiteko pentsatua. Errealitatean, gartzela-politika hau ez da pertsonaren berreskurapena lortzeko, talde militarra eta haren inguru politikoa tratatzeko baizik.

7.3. Intsumiso preso bergizarteratzea

Ejertzitoari intsumisioa egiteagatik preso daudenen kolektiboa preso politiko barruan kategoriatu berezi bat da, intsumisioak, funtsean, praktika armatuan duen erakunde batean sartzeari uko egiteagatik baitira zigortuak. Ez dago gizartearentzat ezer berreskuratzeorik, ez baldin bada indarkeria erabiltzen duen erakundera sartzea. Beren ekintzak ez dira bortxazkoak, legearen muga ukitzen dute, baina era baketsu eta desobediencia zibilaren bidez egiten dute.

Horrela, gertatzen dena harrigarri samarrada da: lege-sistema berberak pertsona batzuk indarkeriaren bideak hartzeagatik kondenatzen ditu ez bere ideia politikoengatik (hala diote) eta beste batzuk, berriz, indarkeriaren bideak hartzearen kontra agertu direlako eta euren ideien aldarrikapen baketsua egin dutelako. Gartzelak beraz funtzio zigortzailea du. Agerian da, hala ere, gartzela alferrikakoa dela eta ez duela inongo legitimizaziorik pertsona horiek bergizarteratzeko bide gisa.

Gartzela-sistemari pertsona edo talde bakoitzak ematen dion sinesgarritasuna, abiaburutzat dituen oinarri ideologikoak, eta presoari egozten zaion delituaren tamainak eragina dute preso kolektibo batzuekin gartzela-erakundeak egin ohi dituen gehiegikeriak onartzeko orduan. Intsumisioagatik preso daudenen kasuan da bereziki defendatzen zaila gizartearen aurrean, argudiorik gabe gelditzen baita, premiazkoa dela horiek gartzelara sartzea.

Gartzela-sistemari pertsona edo talde bakoitzak ematen dion sinesgarritasuna, abiaburutzat dituen oinarri ideologikoak, eta presoari egozten zaion delituaren tamainak eragina dute preso kolektibo batzuekin gartzela-erakundeak egin ohi dituen gehiegikeriak onartzeko orduan. Intsumisioagatik preso daudenen kasuan da bereziki defendatzen zaila gizartearen aurrean, argudiorik gabe gelditzen baita, premiazkoa dela horiek gartzelara sartzea.

8. Preso politikoei ematen

Bergizarteratzeak ezin du izan ez laido bat, ez salaketa bat, ez eta boterearen ezkutuko nagusitasunaren jendaurreko erakustaldi bat ere, askatasunaren truke presoari duintasunaren azken apurrak eskuratzeko





zaien diziplinazko tratua zenbait ezaugarri

8.1. Graduaren arabeko sailkapena

Lehen graduak zigorren betetze zorrotzaren, bigarrenaren erregimen arruntaren, hirugarrenaren erregimen irekiaren eta laugarrenaren baldintzapeko askatasunaren artean, badago, gartzela-legeriaren arabera, banakako tratua egiteko asmoa. Behin zigortuari kontrol egokia jarri eta gero, ondoren gizartearentzat berreskuratu ahal izateko. Delitua egitera bultzatu duena arrazoi politikoa izan duen preso batentzat, graduaren sailkapenarena presoaren

arteko elkartasunezko loturak hausteko asmotan eginga da seguraski. Gradu batetik bestera pasatzeko urratsa gartzela-erakundeei men egitearen saria izan daiteke, edo bere ideia pro-

resoek ahots kualifikatua duen taldea osatzen dute gatazkaren irtenbidea aurkitzeko orduan, eta elkartzeak gogoetarako aukera eskaintzen du

pioak eta bere taldearenak salatu eta gaitzestearen saria. Sari eta zigor sistematzat hartzen denez, presoaren etorkizunaren erabilera politikoa egiten da. Graduak aplikatzeko irizpideak objetiboak balira, neurri handi batean galaraziko litzateke egungo sistemak sailkapena eta gradu batetik besterako urratsa tresnatzat erabili ahal izatea.

8.2. Urrutiratzea, sakabanaketa eta isolamendua

Hauexek dira, gartzela-erakundeen ustez, euskal preso politikoa bakoitzak bere erabakiak askatasun osoz hartzeko beharrezkoak dituen hiru baldintzak. Presoa etxetik urrutiratu eta bere onerako dela esatea, sakabanaketara makurtu eta beretzat hobe dela esatea, edo isolatua utzi eta beregan pentsatuz egin dela esatea, XIX. mendeko erreformatzaileen ideietatik oso hurbil dagoen paternalismo krudel baten ispilu bat besterik ez da: «*zigortuak gero eta gaitasun handiagoa izan pentsatzeko, orduan eta delituarengatik errudunagoa izango da; biziagoa izango da bihotz-zimikoa eta mingarriagoa bakar-dadea... Bakardadea da erabateko otzantasunerako lehen baldintza*».

Gartzela eredu hau gartzela-sistema zigortzaile eta mendekatzaile baten erakuslea da, non «*bergizarteratzea onartzen ez duen edozein preso, fisikoki eta sikikoki apurtua eta erresistentziarako indargabetua izango den*» (Senideak-eko sendagileak). «*Gizabanakoak bere denbora-espazioarekin eta bere talde egonkorrearekin dituen harremanak haus-*

tea da sakabanaketaren helburua (...) presoak mugimendu etengabea eduki. Gartzelako ziega bidaia izango da; lekualdaketa eguneroko gertaera. Gainera lekualdaketa bakar-dean bizi izaten da, eta edozein unetan gerta daiteke, gauzez zein egunez. Orain arteko esperientziak argi uzten du gartzela modernoa eta sakabanaketaren eraginkortasun patogenoa noraino irits daitekeen. Arriskuak ezin dira aurrez landu, aurreikusitako ezin direla eta behin gertatu eta gero, manipulatzeko oso zailak izan ohi dira».

 (J.M. Biurrun)

elkarri urrutizaren, sakabanaketaren eta isolamenduen espetxe-politikaren aurka agertzen da. elkarri bat dator Europako Parlamentuarekin, Eusko Legebiltzararekin, Arartekoarekin, alderdi politiko, sindikatu eta bakearen eta giza eskubideen aldeko erakundeekin, eta baita euskal gizartearen gehiengoarekin ere hurbiltasunaren printzipioan oinarritutako espetxe-politika baten alde egitekoan, Espainiako legeriak honela jasotzen baitu. Eta bidezkoa denez, preso bakoitzak bere jaioterri-tik eta bere inguru sozial eta familiarretik ahalik eta hurbilen bete beharko luke zigorra.

8.3. Zigorren gehigarria

Gartzela-zigorra ezin daiteke legeak ezarritako zigorren gehigarri bat izan. Zigorra ezin da askatasunaren ukapenetik areago joan. Handik aurrera, Justizia Administrazioaren ardura da gartzela administrazioak giltzapetuarentzat bizi-baldintza egokiak jartzen dituela ziurtatzea. Hori ez da errealitatean hala gertatzen ordea. Isolamendu-zigorrak, askotan, aurretik inolako zehapenik izan gabe ezartzen dira eta hilabete edo urteak irauten dute. Gartzelako gela-aldaketak noiznahi gertatzen dira eta ez dute azaltzen zeren arabera egiten diren, ez zenbat denboratako den, ez nola egin behar diren, ezta zergatik egiten den ere. Geletako bakardadea, baimendutako objektuen kopuru urria, bisitaldien murrizketa gogorrak, behin eta berriz egiten diren zenbaketak eta abusuzko miaketak, komunikazio eta bisitaldiak baimentzerakoan dagoen erabateko arbitrariotasuna (Senideak, Navalcarnero gartzelari buruzko txostena, 1995). «*Eta han, urrutiko lurralde haietan, zuretik hain urrun, benetako errealitate gordinarekin egiten zenuen topo. Isolamendua, erasoak, miaketak eta barne-barneko bizipenetan eskuhartzearen errealitatearekin... Han bizi eta sentitzen zenuen, argi eta garbi, gure senitartekoen aurka eta gure kontra "denak balio duela"*». (Senideak)

8.4. Presoak elkartzea

Presoak elkartzea ez da hemengo legeriak agintzen duen zerbait, baina elkarrik horren alde agertu nahi du, gatazkaren irtenbiderako baliabide bat





dela uste duelako, kontuan izanik irtenbide bat bilatzeko orduan, presoek ahots kualifikatua duen talde bat osatzen dutela.

Kolektibo guztiaren edo zati baten iritzi adierazgarria emateko beharrezkoak dituzten baldintzak eskaintzea gatazkari irtenbideak bilatzen hasteko modu bat da. elkarri presoek kolektiboa zatitzeko estrategien aurka dago, eta horren ordez, presoak gartzela batean edo batzuetan biltzea proposatzen du, beraien eta partaide diren taldearen etorkizunari buruz hitz egin eta gatazkaren irtenbide demokratikoari buruz eztabaidatu ahal izan dezaten, horretarako beharrezkoak diren baldintza materialak eta giroa eskainiz.

Zentzu honetan, azpimarratu beharra dago, antzeko beste zenbait egoeretan, esate baterako, Ipar Irlandan, erakunde paramilitarretako presoak gartzela berean elkartuta egoteak gatazkaren egoera eta izaerari buruzko etengabeko eztabaida eraginkorra eta eraikitzailea ireki duela. Adierazi behar da eguneroko bizitza autogestionatzeko aukera eta kanpoaldearekin harreman zuzena izan dutela, euskal presoek baldintzekin deus ikusirik ez duen egoera, alegia. Izan ere, analista askorentzat Ipar Irlandako bake prozesua Mazeko espetxean jaio zen, bertako preso errepublikarren kolektiboa izan baitzen hasieratik bake prozesua bultzatu eta babestu egin zuena.





hirugarren atala

9. Gartzelaren arazoari aurre egin eta hura aldatzeko programaren plangintzarako edukiak

«Gartzelak desagertuko diren eguna hel daiteke ... baina hor dauden bitartean, imajinarioarekin eta ahaleginduz hain zuzengabeak, gupidagabeak eta zentzugabeak ez izatea lor dezakegu» (Manuela Carmena, Gartzeletako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epaillea). Horixe da txosten honen helburua eduki-zerrenda hau aurkezterakoan.

9.1. Segurtasunaren gaintetik baldintzak leuntzea

•Giza Eskubideak bermatzea. Eskaera hau zehaztapenak behar dituen esaldi egina bilakatzen ari da, slogan hutsa. Hauek dira, askatasuna galtzea gautzatzen duten hiru mailetan (atxiloketa, epaiketa eta espetxea) ekimen baterako eta behaketa protokoloetan giza eskubideetan oinarrituz kontuan hartu behar diren artikulua:

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Artikuluak: 5, 7, 8, 9, 10, 11 eta 12.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. Artikuluak: 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15 eta 26.

Tortura eta beste tratu txar edo zigor krudel, gizagabe ala ankerren aurkako Hitzarmena. Bereziki, 1.1, 2, 3.1, 4.1, 11, 12, 13 eta 15. artikuluetan.

•Legeak zigortua dagoen gartzelara joan beharko luke presoaren jarraipena egiteko. Hau da, botere judiziala instituzionalizatu eta espetxe barruko bizitzan momentu orotan presente egon behar du indar penalaren gehiegikeriak mugatzeko eta arautzeko. Espetxeetarako Lege Organiko Orokorrak utzi behar dio espetxeko arau zorrotzak (presoa menperatzeko helburua dutenak) soineko progresistaz mozorratze-ari.

•Presoak bere erroak gal ez ditzan bermatzea. Espetxeetako Arau Europarren ustez gartzelak «atxiloketaren eragin gaiztoak eta espetxearen eta askatasunean bizitzearen arteko desberdintasunak ahalik gehiena murriztu behar ditu». Desberdintasun hori murrizteko faktore garrantzitsuenetariko bat pertsonak erroak ez galtzea da. Atxilotuak adierazi behar du bere ingurune sozialetik gertu egon nahi duen ala ez. Bere eskubidea da, eta politikoki edo ideologikoki ulertutako «administrazioaren eta segurtasunaren beharrek» eskubide horren pean egon behar dute. Presoen sakabanaketa ez da ez legez-

koa, ezta gizatiarra ere. Euskal preso guztiak Euskal Herriko gartzeletara gerturatuz gero, espetxeko baldintzak humanizatzeaz gain, distentsio soziala lor daiteke, eta horren ondorioz, bake-prozesuaren bidean lagunduko dezake.

•Gartzelan dauden emakumeentzako bizigarritasun baldintza zehatzak. Emakumeen sallean zerbitzuen azpiegitura ezin da izan gizonezkoena baino murriztagoa edo kalitate kaskarragokoa. Gainera, emakumezkoen berezitasunak zerbitzu gehigarriak eskatzen ditu. Gartzela instituzioaren ardura da emakumearen haurdunaldia eta amatasuna zaintzea, gartzelan egonik ere, horretarako eskubidea ahalik eta modu arinenean izan dezaten.

•Gartzela gizartera ireki. Gizartearekin komunikazio moduak ahalik eta gehien malgutu; lehenik eta behin, presoaren eta bere familia eta lagunen arteko harremanak estutzeko, eta gobernuz kanpoko erakundeei sartzeko bide desberdinak bultzatzeko. «Gizarte ekimen garrantzitsuen eta nagusia, espetxea kalera eraman ezin dugunez, kalea gartzelara eramatea da». (J.Valverde) «gartzela da "bergizarteratu" behar den erakundea eta komunitatean integratu behar dena» (Ararteko). Gutunak, elkartruke kulturala eta ikasketak, telefonozko deiak, bisitak, vis a visko komunikazioa, e.a., gartzela-instituzioaren itxi-irudia gainditzeko ahalik eta gehien bultzatu behar dira, eta ahal den neurrian «gizartearen bizitzan espetxea gizartera dadin». (Ararteko)

EAEn eta Nafarroan gartzelarekin ikustekoa duten GKEak maizago sartzan dira Estatuko beste toki askotan baino.

•Lehen gradua. Erabateko isolamendua preso arriskutsuei aplikatzen zaien neurria da. Baliabide honen murrizketa eta bere baldintzak leuntzea ezinbestekoa da (Ararteko). Preso politikoei ezartzearen helburua zigortzea da, eta horrekin batera Barne Ministeritzaren jarraibide politikoei men egitea. Prozedura hau, berez zalantza askokoa izateaz gain, arbitrarioki aplikatzen da, iturri dituen printzipio legalei kaso egin gabe.

•Intimitaterako eskubidea. Espetxea estimulu anitzaren aurrean jokamoldeak aztertze eremu bihurtzen ari da. Intimitatea presoak duen eskubide utzizina da, eta kontrola betiere pertsonaren duintasuna errespetatzen duen prozedura baten menpean egongo da.

•Baldintza materialak hobetu. Tokiak, materialen





kalitatea, eraikuntzaren baldintzak eta mantentzen oso txarrak dira, eskasak. Beharrezkoa da espetxeetako arkitektoek duten ikuspegi erasotzailera aldatzea, izan ere, segurtasun haundiko gartzelatan harria bera diziplinaren partaide eta adierazle egin baitute.

- Ingurugiroaren arloko baldintzak hobetu. Kiratsak, zaratak, mugimenduen leku falta, argi falta, espazio txikiak, landareak edukitzeko debekua edonork gela bere moduan antolatzeak aukera falta.

- Kultura eta kirolaren arloko aukerak hobetu. Kulturarako, hezkuntzarako eta kirolean aritzeko mugimendu askatasun handiagoa, instalazioetarako sarrera ahalik eta modu hoberenean arautuz. Irakaskuntza arautuko ikastetxeekiko harremanak bultzatu eta erraztea, nola behe-mailetan hala unibertsitate mailan.

9.2. Presoaren zigorraren aringarriak erakundearen aurrean defendatu beharra

- Irizpide objektiboak. Espetxeetako bizi-baldintzei buruzko erabakiak hartu behar dituzten Junta edo Auzitegietan balorazio-irizpide objektiboak jarri behar dira, baina horiekin batera balorazio orokorra ere behar da, erabakiak hartzerakoan presoaren motibazioak ulertzen laguntzeko.

- Presoaren zigorraren aringarrien aplikazioa. Barneko bizitzaren baldintzak hobetzeko neurriak, eta hirugarren gradua, erregimen irekia edo baldintzapeko askatasuna lortzeko aplikazioa alde aurretik ezarritako irizpide objektiboek segituz egin behar da, presoaren zainketaz arduratzen direnen irizpide subjektiboek garrantzirik izan ez dezaten.

- Kanpoko laguntza legala. Abokatu edo medikuekiko harremanei dagokienez, gartzela-erakundeak abokatu eta medikuekin elkartzeko aukera eta kontsultak ahalik modu egokienean egiteko bidea bermatu behar du. Gartzelako bizitzaren baldintzen hobekuntzak eskuratzeko aukerak berehalakoa behar du, eta erakundea bat ez badator, espetxez kanpoko erakunde baten aurrean errekurtsioa aurkeztea berari dagokio.

- Komunikazio horizontalerako bidea erraztea. Presoaren eta haiekin lan egiten duten langileen artekoa: funtzionariak, profesionalak eta adituak.

- Gaitz sendaezinak. Espetxeetako Araudiaren 104.4 eta 196. artikuluek diotenez, gaixotasun larriak eta gaitz sendaezinak dituztenek baldintzapeko askatasuna lortzeko eskubidea dute. Horretarako betiere Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailleak erabaki behar du, eta Tratamendu Batzordeak tramitatu. Gartzelak askatasuna galdu dutenen osasuna bermatu behar du. Ez da humanoa, ez zuzena, hiltzorian dagoenean uztea libre, hiltzeko baizik ez duenean denborarik. Gartzelan

aritzen diren osasun profesionalak gaixotasuna sendaezina bilakatu aurretik hartu behar dituzte neurriak. Gartzelatik kanpoko sendagileak egindako txostenari Elkargoak babes eman beharko lioke, apaingarri bat bihur ez dadin. «Gartzela kanpoko profesionaletara eta eskualdeko osasun azpiegiturara irekia egongo da. Bestalde, gaixotasun mentalak sendatzeko prozesua askatasun-baldintzetan gertatzen da, beraz, osasun irizpideak espetxearenaren gainetik egon behar du». (J.M. Biurrun)

- Baldintzapeko askatasuna. Behin zigorraren 3/4 bete eta hirugarren graduan egonda, baldintzapeko askatasuna ez da prozedura automatikoaren bidez eskuratzen, Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailleak hartzen du erabakia Tratamendu Batzordeak eginiko txostena kontuan hartuta.

Azkenean, es-tamentu profesionaletakoe-ek emandako informazio eta irizpide subjektiboek erabakiko dute presoaren askatasuna. Ez dago irizpide objektibo en protokolo bat, preso bere askatasunerako eskubideaz balia dadin.

Espetxe-ko Batzordea behartua dago txosten bat egitera, eta presoak, teoriarik, espetxe-ko administrazioa bere askatasunerako prozedura martxan jartzea behar dezake. Errealitatean, espetxe-administrazioak eskumen judizialak kolonizatzen jarraitzen du eta etorkizunean presoak izango duen bizitzaren kudeatzaile bakartzat hartzen du bere burua. Baldintzapeko askatasunak automatikoki aplikatu beharreko eskubidea izan beharko luke, eta gartzelako administrazioa bat ez baletor, espetxe-ko administrazioetik kanpoko auzitegi edo erakunderen baten aurkeztu beharko luke aurkako errekurtsioa.

- Elkartzeko eta ordezkarietarako eskubidearen onarpena. Presoek elkarteak sortzeko eskubidea eta espetxearen zuzendaritzaren aurrean beraien ordezkariak hautatzeko aukera izan dezatela.

- Elkarrizketa eta adostasuna. Gartzelan kalean bezain garrantzitsua da. Elkarrizketa, akordioa eta espetxe-ko errealitatea bizi dutenei kontsulta egitea dira arau logikoenak eta gizatiarrenak, gartzela izan ez dadin aurretik somatu ezin diren ondorioak izan ditzaketan gatazka indibidual eta kolektiboek iturri.

Legeak zigortua dagoen gartzelara joan behar luke presoaren jarraipena egiteko. Hau da, botere judiziala instituzionalizatu eta espetxe barruko bizitzan momentu orotan presente egon behar du indar penalaren gehiegikeriak mugatzeko eta arautzeko





9.3. Esku hartu behar duten erakunde eta eragileak

- Batzordeen eta Auzitegien independentzia. Estrategia diziplinarioa diseinatzeko duen erakundeak, presoaren aurka dagoen sistemaren parte izanik, ez luke hauen jokabideen arautzaile izan behar. Profesionalen talde independenteak, hots, kanpoan aritzen diren esparru juridikoko pertsonak, dira presoak aurkeztutako salaketak eta gradu desberdinetarako askatasun eskaerak jasotzeko behar dituztenak. Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailearen figura sendotuz gero ardura hau bete lezake.

- Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailea. Komunikaziorako izapideak erreztea, presoak telefono zuzen bat edukitzea edozein unetan eta dohainik Epaitegiko bulegoarekin komunikatzeko eta maiztasun zehatz batekin derrigorrezko bisitak komunikazio protokolo bati jarraituz gauzatzea. Gartzelako bizi-baldintzak gehien humanizatu ditzakeen figura da. Bere ardurak duen garrantziak konturatzen den heinean, modulu eta geletako errealitate gerturatzen doa. Presoaren alde hartu diren zenbait erabakirik pentsarazten dituzten presoekiko ardura handitzen ari dela eta administrazioari gehiago eskatuko zaiola. Salhaketak «gartzelako bizi-baldintzak zaintzeko figura espetze-administrazioaren kontrolerako botere juridikozionala bihurtzea» proposatzen du.

- Espetxeetako ikuskaritzaren figura bultzatzea. Gartzelako Bizi-baldintzak Zaintzeko Epailearen menpe egon dadila, bisiten sistema bat arautu eta espetzearen eta presoaren egoeraren erradiografia biribila bermatuko duen protokolo batez hornitzea.

- Elkargoak. Medikuek eta abokatuak elkargoak, eta Unibertsitateak berak ere, gartzelako bizitzaren parte hartu behar dute, adituen ezagutza independentea eskainiz.

- Justizia Ministerioaren menpe. Espetxe Erakundearen Zuzendaritza Orokorra Justizia Ministerioaren edo Sailaren menpe egon behar du. Barne Ministerioaren ardura hauxe: espetzeetako hormen kontrola. Lekualdatzeetan funtzionario judicial bat egotea ezinbestekoa izango da, presoak geldirik ez dadin bakarrik aginte polizialen ardurapean.

- Espetxeetako eskumenaren transferentzia EAEko eta Nafarroako administrazioetara. Arartekoaren txostenean, Salhaketaren proposamenetan, hala nola beste zenbait azterketa pribatu edo publikotan, esate baterako, «Prisión y sociedad en Euskadi» César Manzanos, EHUko irakaslearen taldeak egindakoan, guztietan bat datoz honetan: espetxeen eskumenaren transferentzia aukera ona da Euskal Herriko gizartearentzat gai honen inguruko informazioa izateko, gaiak eztabaidatzeko, eta ondoren, espetze eredu bat erabakitzeko, zeinean «Giza

Eskubideak erabat errespetatu eta elkarbizitza bakezalearen defentsa egin dadin» (Ararteko). «Prisión y sociedad en Euskadi» azterketa lanak hiru jarduketara-bide eta lan-ardatz proposatzen ditu:

I. Eredua: Espetxearen kopia. Administrazioaren deszentralizaziorako ikuspegia.

II. Eredua: Espetxearen bergizarteratzea. Espetxearen administrazioa euskal administrazio publikoaren barrenean sartzea.

III. Eredua: Espetxearen deuseztatzea. Askatasun eza dakarten zigorrak pixkana-pixkana gutxitzeko estrategia.

Euskal administrazioek honako hau egin dezakete: (a) espetxeetako transferentzia eskuratzeko eskaera beren gain hartu, orain arte baino gogo handiagoz; (b) askatasun eza zigorra bergizarteratzeko eredu bati ekin berehala, eta (c) aurrerapausu erabakiorrak eman askatasunean edo erdizkako askatasunean betetzeko zigorrak ezarriz, Espetxe Berrien Amortizazio eta Eraikuntza Planak ezarritako irizpideekin amaitzeko desioaren adierazgarri moduan. «Espetxeak leku duinak bihurtu, eta askatasun faltatik abiatuta askatasunean bizitzeko hezi».





laugarren atala

10. Presoak bake-prozesuan

10.1. Sarrera

Bake-prozesuan presoek duten egitekoan sakontzeko asmoz, interesgarria iruditu zaigu antzeko beste egoera batzuk ezagutzea, eta beste bake-prozesu batzuetan eztabaidatu diren edukiak azaltzea. Hori dela eta, datozen lerroetan «*Release and Reintegration of Politically motivated Prisoners in Northern Ireland. A comparative study of South Africa, Israel/Palestine, Italy, Spain, The Republic of Ireland and Northern Ireland*» izeneko txostenaren laburpen bat eskainiko dugu. Lan hau Ipar Irlandan arrazoi politikoengatik gartzeleratuta dauden presoekin lan egiten duen Niacro izeneko Gobernuz Kanpoko Erakunde batek argitaratu zuen 1995ean, Kieran Mc Evoy eta Brian Gormally-ren zuzendaritzapean.

Niacro-ren txostenean agertzen den lehen hausnarketak azpimarratzen du ez dela ezagutzen arrazoi politikoengatik gartzeleratuen inguruko akordio bat egin gabe konpondu den gatazka politikorik. Aurrerantzean ikusiko dugun bezala, bai Hego-Afrikari, bai Palestinari eta baita Irlandari ere, negoziatio-prozesua egiterakoan oinarritzko elementu bat izan da presoen auzia. Hego-Afrikari, adibidez, elkarrizketa politikoa hasteko aurre-baldintza bat izan zen. Ipar Irlandako gatazkaren historiak erakusten du, bestalde, presoengatik eztabaida etengabea izan dela prozesuak ezagutu dituen etapa guztietan. Ekialde Hurbilean, Palestinako Erakunde Nazionalako kide kualifikatu batek, negoziatzeko gaien ordena horrela azaldu zuen: «Lehenengo presoak, gero lurra!».

10.2. Zenbait kasu

•Hego-Afrika

Hego-Afrikari arrazoi politikoengatik preso daudenen kaleratze-prozesua konplexua izan zen; Afrikako Kongresu Nazionala eta aurreko gobernuan zegoen Alderdi Nazionalaren arteko negoziatioekin harreman korapilotsuak izan zituen. Komenigarria da azpimarratzea, legeak zioena nahiko zehazki bete bazen ere, pragmatismo handiarekin jokatu zela negoziatioaren une klabeetan.

Arrazoi politikoengatik preso zeudenen kaleratzeko lehen epealdia 1987-89 bitartean garatu zen, Gobernuak eta Afrikako Kongresu Nazionalaren ar-

teko negoziatioen aurreko urrats gisa. 1990eko otsailean Mandela kaleratu eta gero, lan-talde bat eratzea adostu zen, delitu politikoak definitzeko eta presoak kaleratzeko ezarri beharreko mekanismoei buruz aholkatzeko.

Hasiera batean, Gobernuak gatazka politiko «soi-len» ondorioz preso zeudenen (esate baterako, debekatutako talde bateko partaide izateagatik) eta delitu arruntengatik (erahilketa, lehergailuen erabilera, suteak eragitea) preso zeudenen bereizten saiatu zen, euren motibazio politikoa alde batera utziz. Talde aholkulariak Gobernuak izendatutako epaileek osatuak zeuden eta ixilpean aritzen ziren; gertakari honek Afrikako Kongresu Nazionalak prozesua baztertzea eragin zuen.

1991 eta 1992 bitartean Gobernuak presoengatik azkarrago ibilitzea eragin zuten beste gertakari politiko batzuk bizi izan ziren. 1994ko apirilko hauteskundeen ondoren, Nelson Mandela Batasun Nazionalako gobernu bateko Lehendakari izendatu zuten. Gabinetek berriak «Amnistia eta Berrezarpenari buruzko Talde Aholkularia» sortu zuten. Tade honek 1.200 eskaera aztertu zituen, euren delituak arrazoi politikoek bultzatuta izan zirela ondorioztatuz, eta horrela, berrezarpena aholkatu zuten 260 kasutan. Arrazoi politikoak arbuiatu nahi zituen edonorrek Egia eta Adiskidetzarako Batzordeari eskaera bat egin behar zion, eta honek erabakiko zuen delitua politikoa izan zen ala ez, eta beraz, eskatzaileari berrezarpenik bazegokion ala ez.

•Israel/Palestina

Niacro-k bere txostena egin zuen garaian 12.337 preso palestinar zeuden (atxilotze administratibopean edo Israelgo Estatuaren kontrako delitu desberdinengatik zigortuak). Bake akordioak egin arren, presoengatik ez zen zuzenean landu. Baina hala ere, Israelgo gobernuaren adierazpenetatik preso palestinoen kaleratze orokorra egingo zela

Ez da ezagutzen arrazoi politikoengatik gartzeleratuen inguruko akordio bat egin gabe konpondu den gatazkarik





uler zitekeen. Hala ere, hainbat baldintza zeuden: akordioaren aurka zeuden alderdi politikoetako ki-deak neurri honetatik at geratuko ziren, ez zen ka-leratzerik egongo palestinarrek amnistia bat alda-rrikatzen ez bazuten israeldarren laguntzaileentzat, eta kaleratze hori Israelgo soldaduen desagerpena-ren gaian emandako aurrerapenen menpe egongo zen.

1994ko maiatzaren 4ean, «Kairoko akordioa» si-natu zen, eta bertan bost astetan 5.000 preso kale-ratzea edo Palestinako Erakunde Nazionalaren esku uztea aurrekusten zen. Baina, ekainaren 9an, oraindik 3.800 preso besterik ez zituzten aske utzi, nahiz eta uztailaren amaierarako beste 700 askatu zituzten. Kaleratze hau preso bakoitzak hurrengo adierazpena sinatzeari baldintzatua zegoen: «Nik,

behean sinatzen duen honek, nire kaleratzea hu-rrengo baldint-zen pean egingo dela badakidala adierazten dut: (1) Gazako ze-rrenda/Jerico aldean biziko nai-zela eta ez duda-la alde egingo nire zigorraren

epealdia amaitu arte; (2) ez naizela inungo ekintza terroristetan nahastuko, ez eta beste inolako indar-keri ekintzetan ere. Badakit nire kaleratzea 1994 maiatzaren 4ko Gaza/Jericoko akordioaren ondo-rioz egiten dela, eta nire babes osoa ematen diot akordio honi. Badakit ere, dokumentu hau sinatzea nire gartzelatik ateratzeko bete beharreko baldint-za bat dela».

Baldintza hauek ez ziren Kairon adostuak izan eta protesta asko eragin zituzten. Akordioaren aurka agertu ziren alderdi politiko gehienek ez zieten utzi euren presoek adierazpen hau sinatzen, ezta preso-ek beraiek nahi zuten kasuetan ere. Hala ere, ekai-naren 6an Hamas-eko hainbat preso aurkeztu ziren eta sinatu egin zuten. Kaleratuak izan beharrean, beste gartzela batera eraman zituzten. «Aske utzi-tako 550 preso» Jeriko hiri txikian konfinatuak izan ziren. Gertaera honek bergizarteratzeko zailtasu-nak sortu eta manifestazio handiak eragin ditu. Kartzeletan protestak izan dira, gose greba batzuk tartean, kaleratzeko baldintza hauek eta oraindik 5.000 preso egoteak eraginda.

Egundaino, bake-prozesuaren alde dauden talde-etakoak izanik, adierazpena sinatzen duten presoak bakarrik izan dira kaleratuak. Aldi berean, hauetari-ko asko oso baldintza mugatueta utzi dituzte as-ke.

•Irlandako Errepublika

Epe honetan, Irlandako gatazkan indarkeriazko ekintza gehien pairatu dituen lurraldea Iparraldea izan da. Baina hala ere, Irlandako Errepublikak ere jasan du gatazka modu desberdinetan. IRA eta beste hainbat fakzio paramilitarrek ekintzak buru-tu dituzte lurralde honetan edo bertatik zuzendu dituzte, besteak beste bere finantzaketarako edo armak ekarri eta gordetzeko egindako ekintza ar-matuak. Talde paramilitar lealitek atentatuak egin dituzte hegoaldean, eta batzuetan seguru-tan indar britaniarrak ere sartu izan dira bertara.

Bake akordioaren aurretik, 13 pertsona kaleratu ziren, ekintza armatuak bertan behera uztearen ondorioz. Hauek guztiak IRA Probisionaleko kide-ak ziren, besteak beste bizi osorako zigorra zute-nak eta Irlandako Errepublikan motibazio politiko-engatik zigortua zegoen emakume bakarra.

Koalizioko gobernu berriak lehenengo bederat-ziak 1994ko Gabonak ondoren utzi zituzten aske. Kaleratutako pertsona guztiek bakearen alde zin egitera behartuak zeuden eta «*gartzeleratuak iza-tea eragin zuen delituarengatik hunkitutako zuen pertsona edo honen familarteko edo lagunak min-duko zituen ezer ez egitea, ez publizitatearen bi-dez, ezta beste ezerren bidez ere*», sinatu behar zuten. (Irish Times, 1995ko urtarrilaren 19an)

•Ipar Irlanda

Erakunde armatuekin lotura duten presoak Mazeko gartzelan barreiatuta daude, aginte egi-tura propioekin eta arropa desberdinekin. Gainera, moduloen barruan elkartzeko askatasun zabala dute. Euren kide ohiekin loturak apurtu di-tuzten presoak Maghberryko gartzelan daude, be-reziki xede horrekin eraikia eta bertan aurkako fakzioetatik datozenekin eta zigor luzeak dituzten preso arruntetik bat egiten dute. Gainera, preso prebentibo gehienak Mazeko gartzelako modulo bereiztuetan daude. Belfasteko gartzelan istiluak izan ondoren eraman zituzten bertara, normalean azken honetan egon ohi ziren presoak prebenti-boak izan arren.

Stormont-eko negoziazioen aurretik, 1.300 pre-so paramilitar zeuden gutxi gora-behera, gartzele-tako populazioaren ia bi hiruren, eta gainera gehienak oso zigor luzeak zituzten. Orokorrean, gartzeletako populazioak gorakada handia izan du garai gatazkatsuenetan.

«Ostiral Santuko Akordioaren» ondorioz, bi Gobernuak bi urtetako epearen barruan presoak kaleratzeko bideak ezartzeko konpromisoa hartu zuten. Neurri honek ez dio eragingo, bake-proze-suaren alde ez dauden taldeetako presoek.

resoez egiteko aktibo bat zuten dute negoziazio pro-esuetan, aldaketaren aurka dauden beste sektore batzuen aurrean. Hego-Afrikan, Palestinan, Irlandan, eta baita Euskal Herrian ere, preso-ohiak pertsona klabeak izan dira negoziazio taldeetan





10.3. Niacro-ren txostenaren ondorioak

Presoak gatazkaren eta bizi izan den indarkeriaren erakusle dira. Eta modu berean, bake akordioetako parte ez badira, gatazka berpiztea eragin dezakete. Aztertutako kasuetan oinarrituz esan daiteke, zauria gaizki ixteak indarkeri aldi berri bat piztu dezakeela, eta normalean gainera gordintasun handiagoa izan ohi dute horrelako kasuek. Horrela gertatuz gero, esperientziak erakusten digu indarkeria aldi berri bat hasiko dela, eta gainera oraingoan zailtasun gehiagorekin, konponbide berriak bilatzerakoan, aurreko porroten esperientzia ezkorra gogoan izango baita.

Argudiaketa politikoaren eremuan, azpimarragarria da preso hauetariko asko erakunde armatuetako kide eraginkorrrak izan direla. Horrela izanik, jakina da nola hauetariko askok egiteko aktibo bat izaten dutela negoziazio prozesuetan, aldaketaren aurka dauden beste sektore batzuen aurrean. Hego-Afrikan, Palestinan, Irlandan, eta baita Euskal Herrian ere, preso-ohiak pertsona klabeak izan dira negoziazio taldeetan. Kasu askotan gainera, batez ere Hego-Afrikan eta Irlandan, bake elkarrizketak hastera eramaten duen prozesua presoek kolektiboekin aurrez izandako kontaktuen ondorioa izan zen. Britainia Handiak hainbat alderdi politikoetako pertsona esanguratsuak gartzeletan sartzea baimendu zuen, presoekin bake-prozesuari buruzko eztabaida ahalbidezko.

Aldi berean, presoek senitartekoek eragin handia dute gatazkaren garapen eta balizko eraldaketan, prozesua daramaten buruzagi politikoengan duten autoritate moralak dela eta. Negoziatio politiko baten emaitzei eskaini diezaioketen babesak edo errefusapenak eztabaidaren norabidea baldintza dezake.

Estatuek, txostenean jasotzen den nazioarteko esperientziaren arabera, hiru baldintza ezarri ohi dituzte presoek kaleratzea aurrera eramateko:

1. Gizartearen gehiengoak elkarrizketa eta akordio politikoak begi onez ikustea gatazka eta indarkeri egoera gainditzeko metodo bezala.
2. Indarkeriaren adierazpen batzuk edo guztiak bertan behera uztea. Bi aldeetako distentsio elementuak oinarritzko zutabeak izan ohi dira.
3. Presoen auziaren inguruan kontsentsu soziala. Beharrezkoa da, Niacro-ren hitzetan, presoek auziari dago-kionez, espetxe-politika aldatzea eskatzen duten eskariak aseko dituzten bideak aurkitzea, baina gizartearen zatiketa sozio-politiko garrantzitsurik eragin gabe.

Gartzeleratzea da, heriotz zigorra bertan behera utzi zenetik, Estatuak bere esku duten zigor hertsatzailerik handiena. Beraz, indarrean edo erakunde-indarkeriaren baliabide bat da. Txosten hau egiterakoan aholkatu gaituzten iturri askoren arabera, bestelako indarkeriak amaituztat emanaz gero, hau ere egoera berrira egokitu daitekeela ondorioztatuz zitekeen, horrek Zuzenbide-Estatua edo berma eta askatasun sistema apurtzea eragin gabe.

Beste gai batzuei eutsiz, aztertutako kasu gehienetan arnabak entregatzea ez da izan estatuentzat presoek auziari lotuta joan den gai garrantzitsu bat. Irlandako kasuan, aldis, prozesuaren atzerapena eragin zuen, eta gaur egun, akordioak betetzeko arazorik garrantzitsuena izaten jarraitzen du.

Epailtzeko hainbat sektorek esan ohi dute, sistema juridikoak sinesgarritasuna galtzen duela gizartearen aurrean,

presoen kaleratze politikak ezartzen direnean. Baina, Niacro-ren informarean egileek diotenez, legea ez da ez mugikaitza ezta absolutua ere. Alda daiteke eta aldatu egin behar da gizartearen eta egoera berriaren eskakizunei erantzuteko. Are urrutiago doaz, legea oztopo bat ez ezik bakebidean ematen den aldaketa sozial eta politikoaren neurgarri izan daitekeela esaten baitute.

Zigorrek bere osotasunean bete bitzela diotenei erantzuteko, egileek gogora ekartzen dute epaien helburu nagusia presoaren bergizarteratzea dela. Bake-prozesu testuinguru batean, hauek gartzeletan jarraitzeak helburu hori eragotzi lezake.

Irlandan 374 preso kaleratuak izan ziren bake-prozesuaren hasieran. Haietariko 11ak bakarrik ikusi zuten egitasmo hau oztopatuta jokabide arazoak zirela-eta, eta bakarria izan zen berriro ere gartzeleratua. Gatazkaren amaierako testuinguru batean ehuneko hau oraindik ere txikiagoa izan zitekeen, lehengo jokaeretan erortzeko ia arriskurik ez baita go.

Niacro-ren txostenak odolezko delituak dituzten eta zigor luzeak betetzen ari direnen kaleratzea onartezina dela uste dutenen iritzia ere jasotzen ditu. Hala ere, egileen ustez, zigor luzeak dituzten presoak ez kaleratzeak egoera oso korapilotsua sortuko luke, eta neurri batean, preso batzuekiko neurri diskriminatzaile bat izango litzateke. Azken batean, sakontasun handiko gai bat konpondu gabe utziko zen. Honengatik guztiarengatik, Niacro irizpide pragmatikoak, eta ez oso ideologikoegiak, ezartzearen aldekoa da, bake-prozesuaren garapenari laguntzeko asmoz.

10.4. elkarriren ondorioak bake-prozesuan presoak jokatu beharreko paperari buruz

Gatazka bihurtu eta politikoak konpontzeko bultzatu diren bake-prozesuetako esperientzia eredu garriek bi ondorio nagusi erakusten dituzte. Lehenengoa, presoek bake-prozesuan parte hartzeak elkarrizketa, negoziatioa eta akordioa azkartzen dutela. Gartzela barruko presoek elkarrizketek —euren artean, euren talde armatuarekin eta baita gizartearekin ere—, aurrez-aurreko indarkeri estrategia eraldatzen laguntzeko ahalmena dute. Pixkanaka bide politiko eta ez bihurtu bidez, gatazkaren arazoiei buruzko akordio berriak bilatzen joatea eragiten du.

Bigarren ondorioa da, gatazken amaierak beti dituztela eskuzabaltasun handiko neurriak presoentzako. Horrela, bake iraunkor bat aurreikus daitekenean, gatazka eragindako presoek askatasuna berreskuratzen dute.

Gatazken amaierak beti dituzte eskuzabaltasun handiko neurriak presoentzako. Horrela, bake iraunkor bat aurreikus daitekenean, gatazka eragindako presoek askatasuna berreskuratzen dute





na berreskuratzen dute. Bide desberdinen bidez, zigorak gutxituz, epeak eta baldintzak ezarriz, pizkanakako presoek kaleratzea hasten da, azkenean guztiak aske utzi arte. Honako hau bake egonkorreretan ezinbesteko edukia da. Gatazka egoeran aipatu ere ezin diren neurriak, normaltasunez jartzen dira indarrean distentsio eta akordio egoera berrietan.

Hau guztia gure herrian gertatzeaz dago oraindik.

Bibliografía

Michel Foucault, Vigilar y castigar, Siglo XXI editores. 1ª ed. París, 1975.

Jesus Valverde Molina, La cárcel y sus consecuencias, Edit. Popular S.A. Madrid, 1991.

Jesus Maria Biurrun, De cárcel y tortura, Txalaparta edit. Tafalla-NA, 1993.

Ararteko, edit. Ararteko. Vitoria-Gasteiz, 1996.

Senideak, Familiares de Presos, Refugiados y Deportados políticos vascos.

Salhaketa, 3ª Semana de Video-Forum. «Las mujeres en las cárceles vascas».

Dirección General de Instituciones Penitenciarias, Condiciones de trabajo en los Centros Penitenciarios Españoles.

Herri Arduralitzaren Euskal Erakundea, Prisión y sociedad en Euskadi. Oñati, 1987.

Secretaría de Estado de Asuntos Penitenciarios, El sistema penitenciario en España. Madrid, Noviembre de 1995.

Kieran Mc Evoy & Brian Gormally, Release and Reintegration of Politically motivated Prisoners in Northern Ireland. A comparative study of South Africa, Israel/Palestine, Italy, Spain, The Republic of Ireland and Northern Ireland. Niacro, 1995.

